

# IKERTZE Asociación cultural

## BI BELATZAK – Ipuin Anonimoa

Behin batean, urruneko herrialde batean, bazen erregina bat. Urtebetetze-egunean, opari gisa, bi belatz-kume jaso zituen, eta belatz-zaintzaileari eman zizkion, entrena zitzan.

Hilabete batzuk igaro ostean, entrenatzaileak jakinarazi zion belatzetako bat behar bezala hezita zegoela, hegan egiten eta ehizan ikasi zuela, baina ez zekiela zer gertatu zitzaien beste belatzari. Jauregira iritsi zenetik, ez zen zuhaitz-adar batetik mugitu, eta elikagaiak ere hara eramane behar izaten zitzaizkion.

Erreginak mota guztietako sendagile eta petrikiloei deitzeko agindu zuen, baina inork ez zuen lortu hegaziak hegan egitea. Orduan, Gorteko hainbat kideri agindu zien misioa, baina ahaleginak ahalegin, ez zen ezer aldatu. Gelako leihotik erreginak ikusten zuen txoriak geldik jarraitzen zuela. Azkenik, herritar guztiei dei egin zien laguntza eske, eta, hurrengo goizean, belatza lorategi gainean arin hegan egiten ikusi zuen.

-Ekarri mirari-egilea nire aurrera– esan zion segizioari. Handik gutxira, baserritar bat aurkeztu zioten.

-Zuk lortu duzu belatzak hegan egitea? Nola egin duzu? Magoa al zara?

Pozik eta lotsatuta, gizonak honako hau esan zion:

-Ez zen zaila izan, erregina, zuhaitz-adarra moztu nuen, besterik ez. Txoria hegoak zituela konturatu, eta hegan egiten hasi zen.